



# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

93 alea / 2023ko apirila

## Berritasunak



**Apirilaren 28a. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Eguna. LAN INGURUNE SEGURO ETA OSASUNGARRIA, OINARRIZKO ESKUBIDE BAT** da Lanaren Nazioarteko Erakundeak aukeratutako leloa datorren apirilaren 28an ospatuko den **Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Egunaren 2023.** ediziorako.

Leloaren aukeraketak gogorarazten du 2022ko ekainean, Lanaren Nazioarteko Konferentziak (LNK) erabaki zuela **lan-ingurune seguru eta osasungarri bat** sartzea LANEren laneko oinarrizko printzipio eta eskubideen artean.


NOPLOIk bat egiten du kanpaina horrekin, eta bat egiten du eguneroko enpresa-kudeaketan **lan-ingurune seguru eta osasungarriak** sortzen lagunduko duten neurriak ezartzeko eta hartzeko behararekin. Halakotzat hartzen diren lantokiak dira arriskuak ezabatzen dituztenak edo, halakorik ezean, arrisku horiek murrizteko ahal diren neurri guztiak hartzen dituztenak.

## [Argibide gehiago](#)

### **Nafarroako lan-ezbeharrei buruzko hileko txosten berria..**

Laneko Osasun Zerbitzuak hileroko txosten bat egiten du Nafarroako lan-ezbeharren datu esanguratsuenekin. NOPLOren webgunean argitaratuko da. Txosten horietako bakoitzak aurreko hileko datu metatuak jasoko ditu. Neurri honen bidez, interesa duten eragile guztiek une oro gure Erkidegoak laneko ezbeharren arloan duen egoerari buruzko informazio eguneratua izatea lortu nahi da.

Dagoeneko eskuragarri dago [otsailaren txostena](#) kontsultatzeko.



## Nabarmendua



**Amiantoa aurkitzeko eta diagnostikatzeko ikastaroa, toki-erakundeei zuzendua.** Joan den martxoaren 29an eta 31n, 19 pertsonen parte hartu dute **Amiantoaren lokalizazioa eta diagnostikoa-UNE 171370-2- Arauaren hastapenak** ikastaroan. Ikastaroa NOPLOIko teknikariek antolatu eta eman dute. Udal eta udalerrietan material hori kudeatzearekin zerikusia duten aparejadore, arkitekto eta bestelako profilei zuzendutako prestakuntza-ekintza honen bidez, toki-erakundeei laguntza eman nahi zaie arlo horretako araudi-eskakizun berriak bete ditzaten eta, aldi berean, instalazioetan eta eraikinetan amiantoaren presentziaren arazoaren inguruan sentsibilizatu daitezten.

**Enpresentzako mugikortasun seguru eta iraunkorrari buruzko jardunaldia.** NOPLOIko **Enpresentzako mugikortasun segurua eta iraunkorra jardunaldian** parte hartu zuen martxoaren 15ean. Topaketa Nafarroako Trafikoko Probintzia Buruzagitzak antolatu du, eta laneko bide-segurtasunaren kudeaketan inplikaturako erakundeak bildu ditu. Jardunaldian mota horretako ezbeharrak murrizteko arrazoiak eta balizko neurriak aztertu ziren. 2021ean, 1.067 in itinere istripu izan ziren gure erkidegoan.



**Nekazaritzako LHko ikasleak sentsibilizatzeko eta informatzeko saioak.** Martxoan, Lan Osasuneko

Zerbitzuko teknikariek sentsibilizazioko eta informazioko hamaika saio eman dituzte Nekazaritza Eskolako eta Nekazaritza eta Basozaintzako IBko Nekazaritzako LHko ikasleentzat. Saiotetan, baso-aprobetxamenduetako segurtasunaz gain, traktorea iraultzeko gaiak, motozerra, motoaitzurra eta motokultorea behar bezala erabiltzeko gaiak jorratu dira, eta Osasun eta Hezkuntza sailek duela gutxi sinatutako hitzarmenaren barruan sartzen dira.

Hitzarmen horren helburua da eskola-eremuan osasuna sustatzea eta prebentzio-kultura sustatzea.

## Berriak

---

- [El Gobierno creará una Agencia Nacional para luchar contra el cáncer de origen profesional](#)  
ConSalud.es
- [Qué se puede hacer y qué no durante una baja laboral de la Seguridad Social](#)  
Diario de Navarra
- ["La mayoría de problemas de salud mental los provoca el trabajo", según un estudio sobre la desconexión digital.](#) Europa Press
- [Las enfermedades profesionales tienen nombre de mujer.](#) Cadena Ser
- [La OIT lanza el Portal Mundial de Políticas de Cuidados y el Simulador de Inversión en Políticas de Cuidados](#)  
OIT
- [El Supremo considera accidente laboral una caída de camino al bar para merendar en horario de trabajo.](#) Diario de Noticias

---

## Agenda

---



Web-mintegi  
**PERSPECTIVA DE EDAD EN LA GESTIÓN PREVENTIVA**  
Birtuala– Apirilak 19

- Programa
- Izen-ematea



Biltzarra  
**LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO V.BILTZARRA**  
Euskalduna Jauregia, Bilbo – Apirilak 24 eta 25

- Programa
- Izen-ematea



Web-mintegi  
**ROPA FRENTE A FITOSANITARIOS**  
Birtuala – Maiatzak 9

- Programa
- Izen-ematea



Web-mintegi  
**SEGURIDAD DE LAS MÁQUINAS AGRÍCOLAS**  
Birtuala – Maiatzak 10

- Programa
  - Izen-ematea
-

## Argitalpen digitalak



**Estrategia Española de Seguridad y Salud en el Trabajo (2023-2027)**  
INSST



**La emergencia de riesgos psicosociales y el trabajo de plataformas digitales**  
INSST



**Límites de Exposición Profesional para Agentes Químicos en España**  
INSST



**Precariedad laboral y salud mental**  
Ministerio de Trabajo y Economía Social



**Perspectiva de género y prevención de riesgos laborales**  
INVASSAT

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko w ebgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaille honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara [ispln.ufii@navarra.es](mailto:ispln.ufii@navarra.es)



### ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)  
☎ 848 423 771  
Edizio-formatua: Fixategi elektronikoa.  
2023ko apirila